

**ONURA PUBLIKOA DUEN 2.063.3 MARTUZENEGI MENDIKO 142, 143, ETA 144
UNADEN ZATITAN EGUR USTIAKETA ERABATEKO MOZKETA BIDEZ EGITEKO PLEGU
TEKNIKOA. AZALERA 4,47 HA**

1- Aurrekariak

Martuzenegi mendian hainbat urtetan egindako landaketen ondorioz sortutako basoak dira. Azken urte hauetako haizeteak gero eta zuhaitz erorketa gehiago sortzen dituzte, Oiartzungo mendi publikoak erabilera haundiko mendiak dira eta erorketa horiek arrisku egoerak sortzen dituzte, baita, eragozpenak bideak moztuz.

Beste alde batetik, espezie hau oso ondo egokitu da ingurura eta gaitasun haundia du birsortzeko bai hazitik baita zepatik ere.

Unada horietan dauden harizti horiek mozteko gutxieneko adina eta diametroak dituzte.

Hori guztiagatik egokia ikusten dugu aipatutako unadetan haritz amerikarrak mozteak.

Behin zuhaitzak moztuta asmoa bertako espeziekin landatzea da.

2- Ustiaketaren ezaugarriak

2.1 Deskribapena

Baldintza orri honek Martuzenegi onura publikoko mendian, Oiartzungo herriaren jabetzako den mozketa jasotzen du. Moztu beharreko espeziea Quercus rubra da eta egindako landaketaren emaitza da. Egurra esleitzeko kontratu mota **esleipendunaren zorira da**.

2.2. Ustiaketaren kokapena:

2.045.1 Erlaitz Pagogaina mendiaren 142, 143, 144 eta 8 unaden zatiak.

Moztu behar den azalera 4,47 hektareatakoa da eta ondoan dauden beste lursail batean mugarratzeko proiektu esperimental baten ondorioz gelditu ziren zuhaitz bakanak.



1.mapa: moztu behar den lekua

2.3. Benetan dagoena:

Quercus rubra 765 ale

2.4. Gutxi beherako bolumena:

Bolumenaren estimazioa metro kubikotan azalarekin eta errealer a eta 7,5 cm tara **1.135,388 m³**

2.5. Tasazioa:

* Enkantearen oinarritzko prezioa: **35.000 €**

Oharra: BEZa %21ekoa prezio horretan sartuta

2.6 Produktuen likidazioaren merkataritza-unitate

Esleipendunaren zorira

2.7. Egiteko epeak:

2026ko Martxoaren 27rako bukatu egin behar da ustiaketa, eta, ezingo da hasi 2025ko Abuztuaren 1an aurretik.

Eragozpenik egon ezean hemen jasotzen diren lanak 8 astetan egin daitezkeela kalkulatzen da.

3. Baldintza orokorrak.

Ezaugarri Teknikoen Orri Orokorrean (75.08.21eko 200 zk. E.B.O.ko 24.04.1975 Ebazpena), eta Ezaugarri Teknikoen Orri Berezian (75.08.20ko 199zk. E.B.O.ko 06.05.1975 Ebazpena) xedatutakoak beteko dira.

4. Baldintza bereziak

4.1. Tasak: 289,85 €

4.2. Egurra ateratzeko bideak:

Egun mendian daudenak, dauden bezala. Horretarako beste edozein bide konpondu edo egin behar bada, Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuari eskatu beharko zaio eta hark baimena eman ez gero, esleipendunak berak ordainduko du. Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuak behin-betirako esleipena egiten den arte bakarrik berrmatuko du aterabideen egoera, eta uneoro eskatuko du **erabiltzeko moduan** egon daitezela eta, ustiaketa bukatu ondoren, bideen egoera, mendia eman zen garaian zegoen bezalaxe egon dadila.

Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzu honek ez du bere gain hartuko, herri onurako mendiaren barruan ez dauden beste bide batzuk erabiltzerakoan edo horietarako beharrezko baimena ematerakoan sor daitekeen beste edozein erantzukizun.

4.3. Egurra arrastaka eramaten duten makinak:

Ezingo dira erabili mozketa egiten ari den tokian Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzu honen baimena ez badute behintzat, beren lana egun dauden edo eraikitzeak diren bideetan egin beharko dutelarik.



4.4. Bestelako baimenak:

Lanak esleitu zaizkion egur enpresak Errepideetako Zuzendaritza Nagusiak emandako baimena beharko du egurra pilatzeko bere eskumeneko zonetan edo ezarritako pisu mugak gaindituz garraiatu behar duenerako, Gipuzkoako Errepide eta Bideen 17/1994 Foru Arauak ezarritakoaren arabera.

5. Segurtasuna eta Osasuna

Kontratatik laneko segurtasun eta osasunari buruz indarrean dauden xedapen guztiak bete behar ditu, azaroaren 8ko 31/1995 Legea, maiatzaren 30eko 773/1997 Errege-Dekretua eta uztailaren 18ko 1.215/1.997 Errege Dekretua, lan istripuari dagokion guztia beraren eta ez beste inoren erantzukizuna izango delarik. Kontratugile den administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango kontratatik ez baditu betebeharrak horiek betetzen.

6. Beste baldintza batzuk

6.1 Uneoro, Zerbitzu honetako pertsonalak emandako jarraibide eta aginduak bete beharko dira, bai mozketari dagokionez, bai beste edozein oharpideri dagokionez.

6.2. Lanak egiterakoan enpresa esleipendunaren eta Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuaren artean izan ditzaketen iritzi desberdinetan, azken hitza Aldundiaren Zerbitzuak izango du.

6.3. Bai Administrazioaren aurrean bai partikularren aurrean esleipendunak bere gain hartuko ditu lanaren ondorioz gerta litezkeen kalteak, esatebaterako, instalazio elektrikoei eta ubideen adarrei edo hirugarrenenoei eta ustiapeneko langileei eginikoak.

6.5. Basolanek irauten duten bitartean herrialde historikoan orri honetan azaltzen ez diren eginbeharrak sortuko balira, basosuteak, euriteek kaltetutako bideak egokitu beharra, landaketa berrietatik kontrolik gabeko ganadua ateratzea, eta horrelakoetan, esleipendunak Administrazioaren esku jarri beharko lituzke aipatutako ekintza horietarako beharrezko baliabideak, beti ere duen ahalmenaren arabera eta Administrazioak eskatzen dion unean.

6.6. Ustiaketa eremuan mugarrotutako hainbat zuhaitz daude eta horiek arrisku gehigarri bat suposa dezake lanak egiteko garaian.

Donostia, 2025ko Ekainaren 25a

O.I

**MENDIAK ETA HABITATAK
KUDEATZEKO ZERBITZUBURUA**

BASOETAKO ATALBURUA

Sin: Inmaculada Lizaso

Sin: Ismael Mondragon

INFORMAZIO OSAGARRIA: ZUHAITZ KOPURUA DIAMETRO BAKOITZEKO

Diametroa	Kopurua		Diametroa	Kopurua
11	3		45	20
12	5		46	9
13	3		47	13
14	4		48	16
15	3		49	30
16	3		50	19
17	5		51	22
18	7		52	26
19	10		53	11
20	6		54	10
21	9		55	20
22	7		56	14
23	7		57	14
24	9		58	12
25	10		59	14
26	9		60	10
27	12		61	14
28	9		62	7
29	4		63	14
30	10		66,5	52
31	12		72,5	15
32	10		77,5	8
33	10		82,5	6
34	17		87,5	5
35	15		92	3
36	24			
37	18		Guztira	765
38	9			
39	13			
40	23			
41	21			
42	25			
43	34			
44	15			